ZIBERSTEILAS
EAEko IRAKASLEAK
4
Data 2025/10/20
STEILASen informazio elektronikoa •

KARRERAKO FUNTZIONARIOAK
Urriaren 17an **Berratxikipen** prozesua bidaliko omen da zentroetara egutegiarekin batera.

HEZKUNTZA SAILEKO LANEKO ARRISKUEN ZERBITZU ATARIA
Arrisku psikosozialen azterketak egingo dituzte ikastetxe guztietan. Inkestak bidaliko dira erantzun gehien jaso ahal izateko.

IKASIZ HEZI PRESTAKUNTZA-JARDUEREN DEIALDIA
Bigarren txandako ikastaroetan onartutako behin betiko ebazpena argitaratu dute. Ikastaroetan hutsik geratu diren plazetan izena emateko eskaera Hezigunean egin beharko da. Eskaerak, kronologikoki, eskara hurrenkeraren arabera onartuko dira, plazak agortu arte.

Eskaera egiteko epea urriaren 18an ireki zen eta plaza hutsak agortu arte edo ikastaroa hasi baino egun batzuk lehenago itxiko da.

KARGU AKADEMIKOAK
Zuzendari-kargua egikaritzeari dagokion berariazko ordainsari-osagarriaren zati bat finkatzeko deialdia zabaldu dute.

Eskabideak aurkezteko epea: urriaren 15etik azaroaren 14ra arte, biak barne. Argibideak hemen.

2025-2026 IKASTURTERAKO BIRBAREMAZIOA
Deialdia azaroaren lehenengo astean publikatuko omen dute. Datak argitaratzean, hitzaldi irekiak antolatuko ditugu.

50 ORDUKO BAIMENA
Ikasturte honetatik aurrera tramitazioa Eizuren bidez egingo da eta bertan hartutako ordu kopurua erregistratuko da.

LANBIDE HEZIKETA

Modulu berrien prestakuntza-eskaintzaren bi deialdiei buruzko informazioa Hezigunean daukazue ikusgai.

HEZKUNTZA SAILA ENTZUN,
ISRAEL ESTATU GENOZIDAREKIN NEGOZIORIK EZ!

Araba ✆ 945 14 11 04 araba@steilas.eus
Bizkaia ✆ 944 10 02 98 bizkaia@steilas.eus
Gipuzkoa ✆ 943 46 60 00 gipuzkoa@steilas.eus
Nafarroa ✆ 948 21 23 55 nafarroa@steilas.eus